

Balio Etikoak ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Lorien López de San Román Bajén	Maila	4DBH	Ikasturtea	2020-2021
-----------	------------------------------------	-------	------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez ditu ezberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Balore etikoak ikasgaia DBH osoko mailatan irakasten da, eta hautazko ikasgaia da. Astean Balore etikoak ikasgaia ordubetez landuko dugu. Laugarren ikasmilan gizakiaren duintasuna hartzen da abiapuntutzat, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren oinarritzko balioa baita, eta hausnartzen da pertsonaren eskubideez, haien irismen eta mugez eta XXI. mendeko erronka etikoez. Hirugarren ikasmilan hasitako teoria etikoei buruzko azalpena osatzen da. Demokrazia eta Estatuaren mende honetako papera berraztertu ondoren, legeen zilegitasuna planteatzen da, giza eskubideetan oinarrituta, segurtasunerako eta bakerako eskubidea bereziki azpimarratuz. Azkenik gogoeta egiten da gaur egun zientzia eta teknologia ukitzen dituzten alderdi etikoez.

Ikasgaiaren gai nagusiak 4DBHn hauexek izango dira: adimen emozionala, elkarbizitza, askatasuna eta erantzukizuna, hezkidetzeta, eta bizitza demokratikoaren oinarriak.

Eskola Solidarioak Sareko kide garen aldetik, Generoekin lotutako buloak nola sortzen diren eta nola saihesten ahal diren tailerra egingo dugu.

Irakaslearen emaila: llopezdbaj@educacion.navarra.es

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1) Hizkuntza komunikazioa.	x	x	x	x	x	x				
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.						x				
3) Gaitasun digitala.	x	x	x	x	x	x				
4) Ikasten ikastea	x	x	x	x	x	x				
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	x	x	x	x	x	x				
6) Ekimena eta ekintzailtza.	x	x	x	x	x	x				
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	x	x	x	x	x	x				

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

(ikasgai bakoitzari dagokion curriculumaren zatia estekan)

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
5	Balioak mundu globalizatu batean	5	Demokrazia, biziteko era bat	5	Bakerako eskubidea
5	Etikaren garrantzia. Adimen emozionala.	5	Gizartea eta justizia. Giza eskubideak	5	Etika, zientzia eta teknika

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

-Metodologiari dagokionez, klasean talde dinamikak, lan kooperatiboa, eztabaidak, eguneko berriak komentatu, disertazioak (hausnarketa pertsonalak) eta ahozko aurkezpenak tartekatuko dira.

-Baliabideak:

- Zenbait filma, dokumental edota antzeakoak ikusi ahalko dira. (Denboraren arabera).
- Komunikabideak, on line-ko entziklopediak nahiz interneta erabiliko ditugu.
- Hainbat gaien inguruan, hitzaldi ezberdin batzuk egon ahal dira..

Irakaslearen liburua (BAL Balio etikoak. Vicens Vives argitaletxea. Bigarren Hezkuntza. ISBN 978-84-682-5058-8).

*Classroom eta Instagram kontua: **@iturramafilosofikoa**

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Ebaluazio bakoitzeko azken notaren osaketa:

1.-Klasean egindako lanak: bakarkako lana (test moduko azterketa edota lan pertsonalak) edo/eta lan kooperatiboa %60

2.- lan ohiturak, jarrera eta portaera: notaren %40a.

2.1 klaseko inplikazioa eta jarrera (%20)

2.2 klaseko edo etxeke lana egitea (%20) (*)

(*) Ebaluazio batean etxeke lanik egongo ez balitz, "etxeke lana" atalak notan izaten duen pisua

(%10) "klaseko lanak" izeneko atalari gehituko zaio. Bestalde, jarrera desegokia izango balu, 'ez gai' nota jarriko litzaioke eta teorikoaren nota gordeta geratuko litzaioke jokaerak hobera egin arte. Ekaineko nota finala 3 ebaluazioetako noten batz bestekoa izanen da, beti ere 2 ebaluazio gutxienez gainditu baldin badira (2 ebaluazio suspenditu eta berreskuratu ez baldin badira, ez da batz bestekoa egingo).

OHAR GARRANTZITSUAK:

1. Elkarrekiko errespetua, klaseko lana eta parte hartze egokia izatea ezinbestekoak izanen dira ikasgaia gainditzeko (2.1 puntua). Azken finean, ikasgai honetan GAITASUN SOZIALA lantzen baita.
2. Epez kanpo aurkeztutako lanek asko jota 5 bat jasoko dute, edukiaren eta aurkezpenaren aldetik gutxienezko baldintzak betez gero. Irakasleak zehaztuko du noiz arte aurkeztu daitezkeen lanak (derrigorrez aurkeztu behar direlako).
3. Ebaluaketan media egin ahal izateko, lanetan 4-ko bat atera beharko da.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

1. Ideiak eta kontzeptuak, azterketetan zein lan kooperatiboetan, zuzenak eta gramatikalki ondo adierazita egotea.
2. Informazio iturri ezberdinak erabiltzea modu zuzen eta autonomoan.
3. Landutako ideiak eta kontzeptuak sintetizatzen jakitea.
4. Landutako ideiak eta kontzeptuak analizatzen jakitea.
5. Landutako ideiak eta kontzeptuak partekatzen jakitea.
6. Sortze-lana egitea, norberaren ideiak eta ikasitakoa uztartuz hausnarketa pertsonalaren bitartez
7. Gai baten inguruan argudiatutako iritzia ematen jakitea eta aldi berean besteen iritzia begirunez entzutea eta ulertzea.
8. Ebaluazio bakoitzean batz bestekoa egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da irakasleak agintzen dituen proiektuak aurkeztea eta proiektu horien notetan 5 batera iristea, eta eginen diren azterketetan 4 bat gutxienez lortzea.
9. Lan kooperatiboa egiten dugunean, jarrera aktiboa eta arduratsua izatea. Bakarkako lanak egitean, lanak garaiz aurkeztea.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

1. Errekuperazioa derrigorrezkoa da ebaluazioa suspendituz gero. Errekuperazioa ebaluazioa pasa eta gero eginen da (1. eta 2. ebaluazioetan). 3. ebaluazioa suspendituz gero, errekuperazioa Nahikotasun probetan eginen da.
2. Errekuperazioa(k) suspendituz gero (1. eta 2. ebaluazioetan), ikasleak Nahikotasuna deialdian aurkeztu beharko du bere burua. Ekaineko Nahikotasun probak Zuzendaritzak jarritako ordutegiaren arabera eginen da.

EBALUAZIOETAKO ERREKUPERAZIOAK

1. 1. eta 2. ebaluazioetako errekuperazioak nola eta noiz egin irakaslearekin adostuko da. Azterketa eginez gero, baliteke azterketa gaindituta egotea, baina lanak aurkeztu gabe edo gaizki egina izatea. Kasu honetan, errekuperazioa egin gabe edo gaizki egindako lanak

berriz egitea izanen da. Alderantziz ere gerta daiteke: lan guztiak aurkeztuak eta ongi eginak izatea, baina azterketa berreskuratu behar izatea. Edo biak berreskuratzeko egotea: azterketa eta lanak. Edonola ere, errekuerazioko nota suspenditutako ebaluaziokoa baino baxuagoa baldin bada, notarik altuena gordeko da.

NAHIKOTASUN PROBA

1. 1. edota 2. ebaluazioetako errekuerazioak suspendituz gero, Nahikotasun Probetara jo beharko du ikasleak.
2. 3. ebaluazioa suspendituz gero, errekuerazioa nahikotasun probetan eginen da
3. Nahikotasun Probak Zuzendaritzak jarritako ordutegiaren arabera eginen dira.
4. Suspenditutako ebaluazioak Nahikotasun proban ebaluatuko dira. Kasu guztietan, ikasleak gaizki egin dituen edota bete ez dituen lanak eginak ekarri beharko ditu, edo azterketa teoriko bat egin beharko du gaintitu gabe duen/dituen ebaluazio edota unitate didaktikoari buruz (kasuaren arabera).

* Nota finala: gaintitutako ebaluazioetako noten batz bestekoa izango da. Bi ebaluazio suspenditu eta berreskuratu ez baldin badira, ikasgaia suspendituztat hartuko da.

EZ-OHIKO DEIALDIA

1. Ez-ohiko deialdi honetan, ikasleak suspenditutako ebaluazioa(k) gaintitzeko azken aukera izango du, ebaluazioetako errekuerazioak eta Nahikotasun probetara aurkeztu (eta ez gaintitu) ondoren.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ikasgai honetan ez da eginen.